

SOZIEATEAREN XEDEA (ESTATUTUEN 1. ARTIKULUA)

1. ARTIKULUA - IZENDAPENA, HELBIDEA, XEDEA ETA IRAUPENA

"PARQUE TECNOLÓGICO-TEKNOLOGI ELKARTEGIA, S.A. merkataritza-sozietate anonimoak Zamudion du helbidea (Teknologia Parkea, eraikin nagusia-101). Administrazio Kontseiluak ezarri, kendu eta lekualdatu ahalko ditu sozietateak dituen sukurtsal, biltegi eta bulegoak, bai eta, udal-mugarte beraren barruan, helbide soziala aldatu ere.

Sozietatea denbora mugagabez arituko da bai industria-ekimena bai industria-inbertsioa bizkortzen eta sustatzen. Horretarako, pabiloiez osatutako industrigunea eraikitzeaz gain, azpiegiturak instalatuko ditu eta higiezinok, ekipamenduz hornituko. Horien ustiapena kudeatzeko hainbat formula erabiliko dira, hala nola errenta, jabetza-eskualdatzeak edo beste edozein, prekarioan lagatzea barne. Bestalde, lokalak eta zerbitzuak bultzatu eta merkaturatuko ditu, hautagai-enpresak hautatuko, eta bertan kokatzeko gonbita egingo die. Aipatu enpresak teknologia aurreratuarekin loturiko alorretan jardungo dira, produktu, prozesu eta zerbitzuetara aplikaturiko informatikan (hardware eta software) eta elektronikan, bereziki. Gainera, horrelako instalazioetan beharrezkoak diren zerbitzuak etengabe kudeatuko eta ustiatuko dira: testu-lanketa, telexa, ordenagailu bidezko marrazketa, datu-baseekiko konexioa, ordenagailuak eta bulegoetako makineria alokatzea, bilera-gelak eta telefono bidezko arreta pertsonalizatua".

**OBJETO SOCIAL DE LA SOCIEDAD
(ARTICULO 1.º DE LOS ESTATUTOS)**

ARTÍCULO 1.º - DENOMINACIÓN, DOMICILIO, OBJETO Y DURACIÓN

"La sociedad mercantil anónima denominada PARQUE TECNOLÓGICO-TEKNOLOGI ELKARTEGIA, S.A. está domiciliada en Zamudio (Parque Tecnológico, Edificio Central-101). El Consejo de Administración podrá establecer, suprimir y trasladar sucursales, depósitos y oficinas que tenga a bien, así como cambiar el domicilio social, dentro del mismo término municipal.

Se dedicará por tiempo indefinido a estimular y promover la iniciativa y la inversión industrial, mediante la construcción de un complejo de pabellones industriales y la instalación de infraestructuras y dotación de equipamiento en inmuebles, gestionando su explotación mediante fórmulas de arriendo, transferencias de propiedad u otras cualesquiera, incluso la cesión en precario, realizando la promoción y comercialización de locales y servicios, la selección e invitación a empresas candidatas a implantarse en él, empresas que realizarán actividades en materias de tecnología avanzada, estimulando, en particular, el campo de la electrónica e informática (hardware y software) aplicada a productos, procesos y servicios, prosiguiendo con la gestión permanente y explotación de los servicios obligados en este tipo de instalaciones: proceso de textos, télex, dibujo de ordenador, conexión con bases de datos, alquiler de ordenador, de maquinaria de oficinas, salas de reuniones y atención telefónica personalizada".